


→ BEZEROEKIN HARREMANA


Zerbitzua eskainiko diegun bezeroek, hau da, enpresa txikiek, gure baliaidearen bidez beraien bezeroekin harreman pertsonal zein automatizatua izateko aukera izango dute.



Proiektu digital bat denez, hau da, interneten bidezko salmenta eta maniki birtual baten bidez arropa frogatzeko aukera, enpresa txikiek beraien bezeroei zerbitzu automatizatu bat emango diete sortutako webgunearen bidez. Bertan, dendak salmentan dituen produktu guztiak agertuko dira, eta erosle bakoitzak bere gustuen arabera hauek frogatzeko eta baita erosteko aukera izango du denda fisikora joan behar izan gabe. Modu horretan, beraien bezeroen

erosotasunenako oso baliagarria izango den zerbitzu bat eskaintzen ariko dira, salmentak handitzeko aukera areagotuz.

Zerbitzu automatizatua eskaintzeaz gain, zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko aukera ere izango dute. Webgunearen inguruan bezeroen zalantza guztiak argitzeko atal bat egongo da, baina galdera horiek argitzeaz gain, bezeroaren maniki digitalak jasotzen dituen neurriak ikusita eta produktua zein den ikusita, gorputz horretara hoberen egokituko litzatekeen neurria aholkatzeko aukera izango luke webguneak. Modu horretan, bezeroei laguntza pertsonal bat eskainiko litzaieke, dendako pertsonalarekin gertutasuna handiagotuz.



Bi laguntza hauek eskainiz, uste dugu bezeroek denda txikietako produktuekiko eskaria handiagotuko luketeela, izan ere, bezeroen erosotasuna eta bezeroekiko gertutasuna salmentak areagotzeko eta denda ezagutzera eramateko oso laguntza onak direlako.